

Noiz sortu zen gaztaroa?

Adina, kontsumoa eta kontrakultura

Egilea: Iker Iraola Arretxe

Arloa: Soziologia

Webgunea: www.gaiak.net

Lehen begirada batean, gaztaroaren –hots, norbait *gazte* den garaiaren– irakurketa biologikoa egin ohi da, eta gazte izatea adin tarte zehatz batekin lotzen da. Baina zein da adin tarte hori? Noiz hasten da gazte izaten eta noiz uzten zaio etiketa hori izateari? Beraz, segituan konturatuko gara gazte izatearen ulerkera historian zehar aldatuz joan dela, eta gizartez gizarte ere haren adiera desberdina dela. Izan ere, gaztaroa, haurtzaroaren eta helduarroaren arteko bizitzaren etapa hori, prozesu historiko zehatzen ondorio den eraikuntza soziala da.

Nor da gaztea?

Adinari erreparatuz gero, ez dago inolako adostasunik gaztaroaren adin mugei buruz. Nazio Batuen Erakundearen lan batzuen arabera, 10 eta 24 urte arteko etapa da; gure testuinguruan, ordea, gaztaroaren amaiera erakundetuak (hainbat instituzio sozialetatik bultzatzen direnak) aurrerago gertatzen dira: 30 urterekin banketxe gehienek kasuan, eta 35ekin alderdi politiko askoren gazte adarren kasuan. Hala eta guztiz ere, konbentzio sozial horiek kasuaren arabera aldatu egiten dira, eta bereziki gatazkatsua gertatzen da gaztaroaren hasiera –eta haurtzaroaren amaiera– zehaztea. Horrela, tarteko etapa bat sortu da: nerabezaroa.

Haurtzaroa eta gaztaroa

Gaztaroaren sorreraz aritzeko interesgarria da haurtzaroaren asmakuntzaz ere aritzea. Izan ere, gure gizarteetan haurtzaroa eta hari loturiko ideiak (haurtzaroa helduarotik guztiz bananduriko mundutzat hartzea, askatasunari eta erantzukizun ezari erabat loturik) guztiz naturalizaturik daude. Hau da, haurtzaroa zerbait naturala baliz bezala ikusten dugu, eta zaila egiten zaigu bere izaera sozialaz jabetzea. Horrela, badirudi haurtzaroa –aipatutako

modu horretan ulertuta– garai eta gizarte orotan existitu den errealitatea izan dela. Aitzitik, historialariek frogatu duten bezala, haurtzaroaren gaur egungo ulerkera nahiko berria da. Philippe Ariès historialari frantsesak erakutsi legez, Erdi Aroan, behin heldu baten etengabeko arretarik gabe bizitzeko gai zenean, lanean eta ardurak hartzen hasten zen umea. Haurrek helduekin batera egiten zituzten bizitzako funtzio guztiak, eta hala izan zen denbora aurrera eginez. Esaterako, ez da ahaztu behar Industria Iraultzan umeen lanak –emakumeen lanarekin batera– izan zuen funtsezko eginkizuna.

Gaztaroa, bada, haurtzaroaren eta helduaroaren arteko trantsizioko etapatzat hartzen da, non pertsonak haur izateari uzten dion baina oraindik helduaroarekin lotu ohi diren egiteko nagusiak (enplegua eta “familia” deritzona sortzea) bete gabe. Hortaz, gaztaroa ikasketa aldiarekin eta aisiarekin zein kontsumoarekin lotu ohi da. Ondorioz, gaztaroaren esperientzia munduko txoko aberatsenetara mugaturik dago, eta klase sozialaren arabera ere oso desberdina da. Klase aberatseko –edo eliteko– kideek euren hezkuntza garaia luzatzeko ahalmena duten modu berean, euren gaztaroa luzatzeko aukera ere badute.

Noiz eta zergatik sortu zen gaztaroa?

Gaztaroaren sorrerari dagokionez, Antzinaro, Erdi Aro zein Erregimen Zaharrean gaztaroa gizonezkoei eta aristokraziari mugaturiko aukera zen. XIX. mendean, gazteria garaiko balio eta estetikarekin inkonformista zen belaunalditzat hartzen hasi zen, eta gazteen eta errebeldiaren arteko loturari hasiera eman zitzaion. Edonola ere, gaztaroaren ikuspegi garaikidea XX. mendean zehar sortuz joan zen; eta gazteria, kontsumo eta kultura ohitura jakinei loturiko kolektibo gisa ikusita, Bigarren Mundu Gerra osteko fenomeno da.

Izan ere, XX. mendeko bigarren erdialdean, Mendebaldeko gizarteetan garatuz joan ziren *kontsumo-gizarte* delakoei loturik sortzen joan zen gaztaroa, askatasuna eta kultura (gazte kultura) zein kontsumo aukera propioei loturiko bizitzaren etapa moduan. Garai haietan, gazteen eskolatzea hedatu eta luzatu egin zen (unibertsitate ikasketen zabaltearekin), eta hainbat sektoretako gazteen kontsumo gaitasuna hazi egin zen. Testuinguru horretan, *merkatu* berri bat jaio zen, eta denborarekin, gazteei zuzendutako produktuak izugarri ugartu ziren.

Kulturaren alorrean ere, gaztaroari lotutako talde eta azpikultura berriak loratu ziren Bigarren Mundu Gerra ostean, Mendebaldeko gizarteetan. 1960tik aurrera, eta Erresuma Batuan bereziki, batez ere estetika eta musika estilo zehatzei loturiko gazte taldeak sortu ziren (mod, rocker, eta geroago, punki, skinhead, hippy eta abarrak). Kasu batzuetan, gehiengoaren kulturaren kritika zuten oinarritzat, eta jarrera kontrakulturalak bereganatu zituzten; beste batzuetan, aldiz, estilo eta musika gustu kontuetara mugatu ziren. Edonola ere, gaztaroan, helduarotik bereizitako bizitzaren etapatzat hartuta, aisiak eta kontsumoak duten garrantziaren erakusgarri dira.